



JUSTIZIA ETA GIZA
ESKUBIDEEN SAILA
Justizia Sailburuordetza

Justizia Administrazioako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS
Viceconsejería de Justicia

Dirección de la Administración de Justicia

Ebazpena, Justizia Administrazioako zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baitira ordezkapenatarako izendatuko diren bitarteko langileen zerrenda, eta birkokatzeko prozesuan eskainitako lanpostuen zein parte hartzeko langileen zerrendak; eskainitako lanpostuak Eibarko barruti judizialeko bulego judizialeko, udalerrietako justizia-bulegoetako eta horien elkarteetako eta erregistro zibileko bulego orokorreko berriei dagozkie

Justizia Administrazioako zuzendariaren 2026ko maiatzaren 26ko Ebazpenaren bidez onartu ziren Eibar, Donostia, Gasteiz eta Barakaldoko barruti judizialeko funtzionarioak adskribatzeko irizpideak, eta egokitze-prozesuaren garapena.

Ebazpen horren 11. artikulua aipatutako barruti judizialeko bitarteko langileak birkokatzeko prozedura zehazten du. Lehenik eta behin, xedatzen du egokitze-prozesuak berekin ekarriko duela, aldez aurretik, Eibarko barruti judizialean zerbitzuak ematen ari diren bitarteko langile guztiek lanpostua uztea.

Halaber, ezartzen du karrerako funtzionarioen ordezkari izendatutako bitarteko langileak berriro izendatuko direla titular horien ordezkari, absentzia eragin zuen kausa beragatik, titularrok atxikitako lanpostuetan, baldin eta lanpostu-zerrendan kasuan kasuko lanposturako eskatutako betekizunak betetzen badituzte. Ordezkapena egiten ari den bitarteko langileak ez baditu betetzen ordezkatzeko duen titularra atxikita dagoen lanposturako eskatzen diren baldintzak, bitartekoentzako eskaintza-prozeduran parte hartuko du.

Horretaz gain, hirugarren paragrafoan, adierazten du karrerako funtzionarioei atxiki ez zaizkien lanpostuak udalerri horretan zerbitzuan diharduten bitarteko langileei eskainiko zaizkiela; hala, bitarteko langile horiek lanpostu guztien artean aukeratu ahal izango dute eskaintza hau egiten denean, baldin betekizun guztiak betetzen badituzte lanpostu-zerrendaren arabera. Esleipena egiteko lan-poltsan dute postua hartuko da irizpidetzat. Hori gauzatze aldera, udalerri bakoitzean prozesu horrek eragiten dien bitarteko langileen zerrenda argitaratuko da, baita udalerri bakoitzean eskaini beharreko lanpostuak ere.

Azaldutakoagatik, karrerako funtzionarioak egokitzeko prozesua amaitu ondoren, honako hau,

EBAZTEN DUT

1. artikulua.- Eibarko barruti judizialean karrerako funtzionarioen ordezkari izendatuko diren bitarteko langileen zerrenda argitaratzea. Izendapena titularra atxiki den lanpostu berrian egingo da, eta absentzia eragin duen arrazoi bera izango du. Esleipena LPZn ezarritako baldintzak bete direla egiaztatu ondoren egin da. Zerrendan, izendapenen lanpostuak zein ordezkapenen arrazoiak jasotzen dira (I. eranskina).

2. artikulua.- Eibarko barruti judizialeko bulego judizialeko, udalerrietako justizia-bulegoetako eta horien elkarteetako eta erregistro zibileko bulego orokorreko lanpostu berrietan eskaintzen diren plazen zerrenda argitaratzea (II. eranskina).

3. artikulua.- Eibarko barruti judizialeko bulego judizialeko, udalerrietako justizia-bulegoetako eta horien elkarteetako eta erregistro zibileko bulego orokorreko lanpostu berrietan bitarteko langileak birkokatzeko prozeduran parte hartuko duten langileen zerrenda argitaratzea (III. eranskina).

4. artikulua.- Prozesu honen parte hartzeko deitutako bitarteko funtzionarioek 2026ko irailaren 15aren eta 17ren artean aurkeztu beharko dituzte eskaerak, biak barne, jarraian adierazten den estekan:

<https://www.euskadi.eus/bitartekoak/eibar-prozesua/web01-tramite/eu>

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
r-humanos@euskadi.eus



Prozesuan parte hartzera deitzen diren langileek, parte hartzeko eskaerarik aurkezten ez badute, edo, eskaera aurkeztu arren, destinorik lortzen ez badute, betetzen duten lanpostua utziko dute, eta lan poltsetan eskuragarri egoerara igaroko dira, zehaztutako iraupen-lehentasunen, lanaldi motaren eta eremu geografikoaren arabera.

5. artikulua- Bitarteko langileek alegazioak egin ahal izango dituzte, lehen aipatutako estekaren bidez eta aurrez adierazitako epean.

6. artikulua- Ebazpen hau izapide-egintza da, ez du gaiaren mamiari buruzko erabakirik hartzen, eta ez dio amaiera ematen prozedurari.

Ondorioz, ezin da horren aurkako errekurtsorik jarri, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

MARIA DOLORES MOVILLA RIVAS
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA